

Eskerrik asko abentura honetan laguntzeagatik

Dagoeneko 25 urte igaro dira Fundatzaileen Zirkulua abian jarri zenetik. 2001eko martxoaren 28tik gaur egun arte, pertsona ugari egin du bat ekimenarekin helburu nagusia betetzeko; hau da, herritar guztiak inplikatzeko arabar guztien proiektu sozial komun honetan, eta Santa Maria Katedrala Fundazioak sustatzen dituen jarduera guztiak finkatzeko eta behar bezala burutzeko babes ekonomikoa lortzea ere bai.

Ahalegin kolektiboari esker, katedrala hiriarentzat berriro ere erreferentzia izatera iritsi da, bai erlijioaren aldetik, bai ondarearen, historiaren, turismoaren eta kulturaren aldetik; modu horretan, gizarte osoarentzako eraikina da.



Fundatzaileen Zirkuluaren bidez, nortasun kulturalaren eta harrotasunaren arteko lotura bat sortu da, herritar guztiak ekimen sozial eta kultural batean inplikatzeko aldera. Proiektu hori ez zen proiektu bera izango gure bazkideek etengabe eskaintzen diguten babesik gabe. Hori dela-eta, Fundazioaren izenean, aukera hau aprobetxatu nahi genuen gure esker ona adierazteko.

Bihotz-bihotzez, eskerrik asko urte hauetan guztietan gurekin izan zareten guztioi!

Nola izan Zirkuluko kide

Urteko gutxieneko bi ekarpen ezarrita daude: 50 eta 100 euro. Ongietorri gisa, laguntzaileek bazkide-txartel birtual bat eta Fundatzaileen Zirkuluaren pin ofizial bat jasotzen dituzte.

Gainera, abantaila hauek izango dituzte:

- Bazkide-txartel birtuala Katedraleko Bisita Gidatuen Programa Orokorra doan eskuratzeko (aurretik erreserba eginda).
- Fundatzaileen Zirkuluko kideekin batera Bisita Programetara joaten diren pertsonentzako deskontua sarreran.
- Deskontua merchandising eta Fundazioak argitaratutako argitalpenak erostean.
- Lehentasuneko tratamendua Fundazioak antolatutako jarduera kulturaletan.
- "Triforiotik berriak" hilabetekariaren bidalketa.
- Zerga-onurak: %45eko kenkaria PFEZ kuotan.


Arabaxoko Haur Abesbatzek eta Musikene Orkestrak musikaz bete zuten katedrala

Santa Marian martxoan izandako bi musika-hitzorduetan jende ugari bildu zen. Herritarrek Arabatxo Arabako Haur Abesbatzen Federazioko bost abesbatzetako neska-mutilen ahotsez eta Musikene Sinfonietta Orkestraren musikaz gozatzeko aukera izan zuten.

Martxoaren 15ean, igandea, erdiko nabean, **Olabide Abesbatzak, Urkide Abesbatzak, Lumturi Abesbatzak, Papargorri Abesbatzak** eta **Kantabil Luis Aranburuk** emanaldia eskaini zuten. Handik astebetera, berriz, 21ean, larunbata, **Alfredo Bernardinik Musikene Sinfonietta** zuzendu zuen, Georg Philipp Telemann, Johann Sebastian Bach eta Georg Friedrich Händel maisuen musika interpretatu baitzuen. Antzinako Musikaren Nazioarteko Eguna ospatzeko topaketa izan zen.



@Arabatxo



@Arabako Antzinako Musika Astea

GASTEIZKO SANTA MARIA KATEDRALEKO LEINUAK: ALVARO DIAZ DE ESQUIVEL

Alvaro Diaz de Esquivel jaunari buruzko datu oso gutxi ditugu. Jakin badakigu haren emazte Ana Diaz de Salinasekin batera lurperatuta dagoela San Felipe kaperan, kolegiatako giroan.

Diaz de Esquivelek hainbat postu bete zituen udal-gobernuan, XV. mendearen amaiera eta XVI. mendearen hasiera aldera. Hautesleen hautesle, alkate, prokuradore nagusi, errejidore, aguazil nagusi, eskribau eta kontseiluko diputatu izan zen. Diputatu gisa, Villa Susoko ateen eta Santa Maria elizaren zaindari ere izan zen. Era berean, Arrosarioko Ama Birjinaren kofradiako kide eta ordezkari izan zen.

Gasteizko alkate izan zenean, une nahasiak bizi behar izan zituen Komunitateen gerra medio, hiria Pedro Lopez de Ayala Aguraingo konde komuneroaren mehatxupearan baitzegoen. Egoera hori zela-eta, testamentua egin behar izan zuen emaztearekin batera 1521eko martxoaren 7an. Mehatxu horren ondoren, Alvaro Diaz de Esquivel, Martin anaiarekin batera -kolegiatako kanonigoa eta ongilea-, Trebiñura



Nitxo-formako horma-hilobia; bertan, Alvaro Diaz de Esquivel eta haren emazte Ana Diaz de Salinasen irudi etzanak irudikatuta daude.

joan zen Arabarrei eta komuneroak zigortzeko bildutako erregearen aldeko beste batzuei hirian indarkeriaz ez sartzeko eskatzera. Handik urtebetera, 1522an, hil egin zen eta San Felipe eta Santiago kaperan lurperatzeko eskatu zuen.

Alvaro Diaz de Esquivel eta Ana Diaz de Salinas lurperatuta dauden hilobia nitxo-formakoa da, eta hormari atxikita dago. San Felipe eta Santiago kaperaren ezkerreko aldean kokatuta dago, eta bertan senar-emateen irudi etzanak daude, monumentua sustatu zutenak.

Lehen Errenazimenduko gustuen arabera apainduta dago hilobia, eta, noiz eraiki zen ez badakigu ere, badakigu 1521ean oraindik eraiki gabe zegoela.



Hilobiaren xehetasuna.